

## VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

7. kronika: **Euskararen aldeko motibazioa****Euskarari buruzko iritziak**

Euskarari buruzko motibazioa neurtzeko herritar guziak hartzen ditugu, euskaldun ala erdaldun. Azterketa lau moldetan egin daiteke:

- Iritziak, zer pentsatzen duten euskararen alde edo kontra. Adostasuna edo dezadostasuna adierazten da iritzi zerrenda batzuri begira.
- Jarrerak, zer egiteko prest diren, edo ez, euskararen alde. Jarrerak iritziak elkartuz finkatzen dira.
- Pertzeptzioak dira euskarari buruzko sentimenduak, zer neurritan eukaldun sentitzen garen, nola baloratzen dugun hizkuntza politika.
- Prospektiba, nola ikusten dugun herriaren edo hizkuntzen etorkizuna, zer nolako gizartea nahi dugun gerorako. Hemen iritziak eta jarrerak aipatuak dira.

Inkestatu guziei, euskaldun ala erdaldun, iritzi zerrenda bat proposatu zeie, galdeginez ados zirenez bai ala ez. Hona hemen iritzi batzuri buruzko erantzunak:

*Euskarari buruzko iritziak % (bai ados +, ez ados -)*

Iritziak	Ados	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	BAB	Lapurdi barne	B-Naf. Zubero
<i>Egiazki euskal herritar izateko, euskara jakin behar da</i>	<b>Bai</b>	<b>+54</b>	<b>+74</b>	<b>+46</b>	<b>+48</b>	<b>+53</b>	<b>+64</b>
	<i>Ez</i>	-36	-20	-41	-39	-37	-27
<i>Nahitezkoa da haur guziek euskara ikas dezaten:</i>	<b>Bai</b>	<b>+52</b>	<b>+71</b>	<b>+45</b>	<b>+43</b>	<b>+57</b>	<b>+65</b>
	<i>Ez</i>	-29	-29	-35	-37	-24	-18
<i>Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea</i>	<b>Bai</b>	<b>+51</b>	<b>+74</b>	<b>+44</b>	<b>+47</b>	<b>+52</b>	<b>+62</b>
	<i>Ez</i>	-32	-13	-38	-36	-30	-24
<i>Irrati-telebistek programa gehiago eman behar lukete euskaraz</i>	<b>Bai</b>	<b>+45</b>	<b>+71</b>	<b>+35</b>	<b>+42</b>	<b>+43</b>	<b>+54</b>
	<i>Ez</i>	-16	-09	-19	-17	-16	-17
<i>Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan ezinez-eta euskara</i>	<b>Bai</b>	<b>+49</b>	<b>+24</b>	<b>+50</b>	<b>+52</b>	<b>+39</b>	<b>+27</b>
	<i>Ez</i>	-33	-49	-27	-27	-35	-41

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

Nola irakur dezakegu taula hau?

1. *Egiazki euskal herritar izateko, euskara jakin behar da :*  
*ados %54, ez ados %36, berdin zait %10.*

Iritzi hau da adostuena. Ehunekotan gehiengoa dauka orokorki eta paradigma guzietan, salbu erdaldunetan eta BABn. Euskaldunen hiru laurdenentzat euskara beharrezkoa da Euskal Herrian bizi direnentzat. Erdaldunek ere erantzun eskor baino baikor gehiago adierazten dute (46% versus 41%).

2. *Nahitezkoa da haur guziek euskara ikas dezaten :*  
*ados %52, ez ados %29, berdin zait %19.*

Kategoria orotan haur guzien euskalduntzearen alde direnak gehiengoan dira, gehiengo handiena euskaldunetan (%71 alde, %19 aurka), baina erdaldunetan ere bai (%46 alde, %41 aurka), hiru eskualdeetan bereziki barnealdean (%65 alde, %18 aurka) baina Lapurdi osoan ere bai. Iduri luke galdeak ez duela burasoen askatasuna kontuan hartzen. Nahitezkoa ez da baitezpada « *obligatoire* » zuzenago litzateke « *indispensable* ». Haur guziek euskara ikasi beharko lukete, nahi badugu euskara indarberritu. Ez gara oraino hein horretan, baina urrats handiak egin dira Hizkuntza Politika Proiektuarekin.

3. *Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea:*  
*ados %51, ez ados %32, berdin zait %15.*

Adostasun hau harrigarria da, dakigularik administrazio publikoa basamortu bat dela euskarentzat Iparraldean. Orotan adostasuna nagusi, euskaldunetan bistan dena (%74 alde, %13 aurka), baina erdaldunetan ere bai (%44 alde, %38 aurka), eta hiru eskualdeetan. Lehen aitzinamenduak ageri dira Herriko Etxeetan. Onarpen publikoaren bidean ote garen ?

4. *Irrati-telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz:*  
*ados %45, ez ados %16, berdin zait %32.*

Hedabideri buruz adostasuna ahulago da (%44), adostasun eza ere ahulago (%16). Eta axolagabea gehi erantzunik eza orotako gorenean %40. Itxuraz, salbu euskaldunek (ados %71), eskualdeek ez dute deus gehiago goitatzten. Alabaina hor daude indartsu euskal irratiak eta ETB1.

5. *Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan ezinez-eta euskara:*  
*ados %43, ez ados %33, berdin zait %23.*

Erantzunak alderantziz irakurri behar dira, ingelesaren alde direnak euskara apaltzen dute. Ingelesaren kontrakoak nagusi dira euskaldunetan (%49) eta Baxenabarre-Zuberon (%41). Beste kategoria guziek nahiago dute ingelesa ikasi ezinez-eta euskara (orokorki %49 alde, %33 aurka).

Laburbilduz, ohargarri da euskararen aldeko iritziak nagusi direla hedabideetan, irakaskuntzan, administrazioan. Baikortasun hori doi bat

harrigarria da jakinez galdea herritar guzietan egin zeinela, euskaldun ala erdaldun. Herritar gehienek euskara nahi dute eskolan, hedabideetan eta administrazioan ere erakundeak arrunt erdaldunak direlarik

Bi bemoi: Ingelesa nagusi eta euskara bigarren mailan da. Gainera galde polemikoa euskara beharrezkoa denetz euskaldun izateko %53 alde eta %37 kontra. Heren handi batentzat euskara ez da beharrezkoa euskaldun izateko. Frantsesari buruz ezin da asmatu ere galde bera egitea, nola frantses izan frantsesa jakin gabe? Hikuntza gutituen ahulezia ageri da.

### **Euskarari buruzko jarrerak**

Inkestatu guzietan, euskaldun ala erdaldun, iritzi zerrenda bat proposatu zein, galdeginez ados zirenez bai ala ez. Hona hemen euskararen (oso) alde direnen ehunekoak :

- Irrati-telebistek programa gehiago eman behar lukete euskaraz, ados % 44.
- Nahitezkoa da haur guzietan euskara ikas dezaten, ados % 52.
- Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea, ados % 51.
- Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan ezinez-eta euskara, ez ados % 37.

Lau iritzi hauek oinarritzat hartuz 3 jarrera definitu dira : oso edo aski aldekoak, ez alde ez aurka, aski edo oso aurkakoak. Iparraldean orokorki axolagabeak dira gehiengoan (%47). Haatik aldekoak (%36) aurkakoak baino askoz gehiago (%17). Itxuraz jendetzaren zati handi bat prest da euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta onartzeko, axolagabezia gaitzen bada

#### *Euskara sustatzeko jarrerak nortasunaren arabera (%)*

Jarrerak	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	65 urte & +	16-24 urte
Aldekoak	36	67	24	36	31
Ez alde ez aurka	47	28	55	45	48
Aurkakoak	17	6	18	19	21

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

Euskararen ezagutzari begira, euskaradunetan, aldeko jarrera adierazten dutenen ehunekoa (%67) askoz aurkako jarrerak (%6) baino gorago dira. Aldiz erdaldunetan %24 dira euskararen aitzinamenduaren alde eta %18 aurka, axolagabeak gehiengo handian %55. Itxuraz hizkuntza gaitasuna eta euskararen aldeko gogoia elkarri lotuak dira.

Adin talde gazteenean euskararen aitzinamenduaren aldeko jarrera ahulago da zaharragoeri konparatuz: %36, %36, %37, %34, %31. Froga hor dago

euskararen aldeko motibazioa sustatu behar dela, hizkuntza politikak ondorio eraginkorrek luzaz eman ditzan.

*Euskara sustatzeko jarrerak tokiaren arabera (%)*

Jarrerak	Orotara	BAB	Lapurdi barne	B. Naf. Zuberoa	Bertako	Etorkin
Aldekoak	36	27	38	55	50	24
Ez alde ez aurk	47	52	48	32	38	54
Aurkakoak	17	21	14	13	12	22

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

Eskualdeka irakurriz, euskararen aldeko jarrera euskaltasunaren araberakoa da. Baxenafarroa eta Zuberoa dira kartsuenak %55 aldekoekin, %17 gutiago Lapurdi barnean (%38) eta beste %11 gutiago BABn (%27). Eraitza hauk kezkarriak dira pentsatuz irauntekotan euskarak hiriguneak behar dituela irabazi. Gaurregun euskararen arnaguneak herri ttipietan dira.

Beste ezaugarri bat, erantzulearen sorteria. Euskal Herrian sortuak direnetan aldeko jarrerak %50 dira eta aurkakoak %12. Etorkinetan aldiz aldeko jarrerak %24, aurkakoak %22, ez alde ez kontra % 54. Hain zuzen BABeko jendetzaren erdia baino gehiago kanpotik etorria da.

Ehuneko nagusia da axolagabeena. Axolagabeak gehiengoan dira Iparraldean orokorki, Lapurdi osoan, erdalduetan, etorkinetan eta adin talde guzietan. Nabari da sentikortze kanpainak lehentasunezko proiektuak direla, nahi badugu axolagabe asko euskararen alde itzul ditzen eta hizkuntza politika ausarta onar dezaten.

*Erramun Bachoc, 2017-12-12*